

11.4. T.N. NEUROGARAPENAREN NAHASMENDUA (DSM-V- 2016)

DSM-5 eskuliburua (Buruko nahasmenduen eskuliburu diagnostiko eta estatistikoa, Psikiatriako Estatu Batuetako Elkarteak -APA- argitaratutako sailkapen eta diagnosirako tresna bat) hartu dugu erreferentzia modura. AEB-tan sailkapen eta diagnosi psikiatrikorako agintaritzaren nagusia da, eta gure erreferentziako tresna da diagnosiak egiteko, hala gizarte esparruan nola osasun esparruan.



Bera Bera K.E.

DEFINIZIOA

Neurogarapenaren nahasmenduek elkar lotuta dauden nahasmendu kronikoen multzo heterogeneoa osatzen dute, haurtzaroko aldi goiztiarretan agertzen direnak, oro har lehen hezkuntzako eskolan hasi aurretik eta, guztiek alterazio bat partekatzen dute trebetasun kognitibo, mugimenduko, hizkuntzako edota (trebetasun) sozialen eskurapenarekin lotuta, eragin adierazgarria dutenak funtzionamendu pertsonal, sozial eta akademiakoari begira.

NEUROGARAPENAREN NAHASMENDUEN BARNEAN DAUDE HONAKOAK:

DesGAITASUN intelektuala duten pertsonak, **komunikatzeko zailtasunak** dituzten pertsonak, **Espetro Autistaren Nahasmendua** orain guztiak hartzen dituena (Garapenaren Nahasmendu Orokortuak), etab. Bi nahasmendu horiei erreparatuko diegu, gure ingurunean gehien agertzen direnak baitira.

Fejerman, N. Arroyo, A. (2013) lanean aipatzen den haur populazioaren % 15-20an dute eragina. Beraz, kontsultarako arrazoi ohikoa da haurtzaroran eta nerabezaroran. **Hautemate, diagnosi eta tratamendurik ezak helduaroan azpi diagnostikatu egiten diren arrastoak uzten ditu, norbanakoak bere bizitza pertsonal, familiako eta lanean bere ahalmena garatzeko aukerak galduz.**